## Zeintzuk dira proiektuak aurrera egiteko behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak?

1. Mikromotorren eta Osagai Elektronikoen Hornitzaileak:
   Aterkiaren kirten barruan integratzen den tamaina txikiko motor azkarra eta kargagarria hornituko duten enpresak.
2. Aterkien Fabrikatzaileak:
   Kalitatezko egitura tolesgarriak eta zentrifugazioaren presioa zein hezetasuna atxikiko duen zorro berezia ekoizteko enpresak.
3. Muntaketa eta Fabrikazio Zentroak:
   Aterkiaren egitura, zorroa eta kirteneko mikromotorra osotasunean muntai ditzaketen lantegiak.
4. Banaketa eta Logistika Enpresak:
   Produktua azkar eta 9,99 €-ko bukaerako prezioa ahalbidetuko duen kostu baxuko banaketa-sareak

## Zergatik dira garrantzitsuak guretzat?

Kanpoko ekoizle eta hornitzaile espezializatuekin lan eginez, ekoizpen-kostuak gutxitzen ditugu 9,99 €-ko salmenta-prezio lehiakorra lortzeko.

- Arriskuak murrizteko:
  Mekanismo elektrikoa kalitatezko hornitzaile bati erosteak bermea eta segurtasuna ematen dio produktuari, akats teknikoak saihestuz.
- Baliabideak eskuratzeko:
  Teknologia eta material egokiak gure gain hartu gabe azkar merkaturatzea ahalbidetzen digu.